

AMAIA ARRIZABALAGA. ARIGERA proiektuko teknikaria.

“Ikasliekin izandako zuzeneko hartu-emanak izan zan polittena”

Eibarko euskaltegian bizpahiru urtez lanean jardun eta gero, 1999ko irailean hasi zen Amaia ARIGERA proiektuan lanean, “proba pillo bat egin ostian!”. Arigerako lan-eskaintzak hasieratik erakarri zuen Amaia, “euskaltegiko esperientzia asko gustatu jatalako eta ARIGERAKO lana oso lotuta zagalako aurreko esperientziarekin”. Hiru urtez barruan zuen onena eman ostean, 2002ko abenduan proiektua lagatzea erabaki zuen, “nekatu egin nitzan. Ideia berrixeri lekua egitteko ordua zala pentsatu naban”. Eta Amaiak laga zuenean proiektuari segida emateko ahalegina egin bazen ere, azkenean proiektua bertan behera lagatzea erabaki zuten Arigera Batzordea osatzen zuten erakundeek.

- Zer eman zion Arigerak Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzeari?

- Gauza txiki batzuk lortu genduzelakuan nago: euskera-ikasle batzuk euskal munduan integratzea lortu genduala uste dot; euskera-ikasliak eta irakasliak ezagutzera eman genduzen; euskera-ikasliak egitten diharduen esfortzua sozializatu edo gizarteratu genduan; eta orain arte egin dan lana herrixaren aurrian errekonozitu genduan proiektuaren hasieran antolatu genduan omenaldixan.

- Aitatuko al dizkiguzu egitasmorik garrantzitsuenak?

- Uste dot egitasmorik emankorrena Tertuliak izan dala. Benetan programa ona da, eta oraindik ere martxan daukagu. Bestalde, euskaldun zaharrak inplikatzeko antolatu genduan kanpaiñiak ere emaitza onak izan zittuan. BARRENen hillero egitten genduan gehigarrixa ere ondo zaguala uste dot, lan haundixa ematen bazaban ere. Amaitzeko, aurrerago aittatu doten moduan, Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzeari eskeiñitako liburuxkia eta omenaldixa ere aittatuko nittuzke. Sektore horretan lan asko eta ona egin da gure herrixan, eta egindako lana bistartzeko eta eskertzeko ahalegiña egin genduan.

- Eta nahi bezala irten ez ziren egitasmoak?

- Ikaslientzako jarduerak mimo guztiz antolatu ondoren, harek ez zirala animatzen ikustiak ematen zidan penarik haundixena.

- Beraz, ikasleek ez zuten proiektuaren beharrik ikusten?

- Gutxi batzuek oso ondo hartu zeber, baiña gehixenak ez zeber guk sumatzen



genduan biharrik ikusten. Izan ere, nahikua esfortzu egitten debe aste barruan euskaltegira juatiarekin, gero, handik kanpora ere segitzeko. Gure nahixa euskaltegixan ikasittakua handik kanpora praktikan jartzeko aukerak eskeintzia zan, baiña jendiak oso lotuta eta antolatuta dauka bere denpora libria.

- Baina oroitzapenak, oro har, onak izango dira, ezta?

- Bai, eta batez ere euskera-ikasliekin zuzenian izandako hartu-emanak azpimarratuko nittuzke. Akaso ez genduan guk nahi genduan guztixa lortuko, baiña egindako lana hor dago.

- Zelan ikusten duzu helduen euskalduntze-alfabetatzearen etorkizuna?

- Batetik, ez dot uste Elgoibarren bi euskaltegientzako tokixa daganik. Bixekin bat egin biharko litzakiela uste dot. Eta bestetik, euskaltegixetako eskeintzia aldatu egin bihar dala begittantzen jata. Sektoria estankatuta ikusten dot, eta aldaketa sakon batzuk mesede egingo leixixue helduen euskalduntze-alfabetatzeari.



Euskara-ikasleak atzean zirela aurkeztu zen ARIGERA proiektua 2000ko urtarrilean.



Ikasleek eta irakasleek bat egin zuten helduen euskalduntze-alfabetazeri eskaintako omenaldian.



Euskaldun berria eta euskaldun zaharra, euskaldunak biak.